



UNIBERTSITATEA-ENPRESA PRESTAKUNTZA DUALA. ENPRESAREN GIDA 2023/2024 Kurtso Akademikoa

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA (GIPUZKOAKO ATALA)
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua



Helburuak

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) Unibertsitateko Prestakuntza Duala jarri du abian Donostiako Ekonomia eta Enpresa Fakultatean ematen den Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan, Unibasq erakundearen egiaztapenarekin.

Enpresek gaur egun duten zailtasun handienetako bat talentu kualifikatua aurkitzea da; hori horrela, unibertsitateko prestakuntza dualak eskari esanguratsua duen prestakuntza daukaten ikasle onenak kontratatzeko aukera ematen dio enpresari.

Aldez aurretik, Batzorde Dualeko kideek, ikastegiko irakasleek eta ADEGIko lankide batek elkarrizketak egin dituzte, 2023/24 eta 2024/25 biurtekoan ibilbide dualeko plazetan arituko diren ikasleen aurrehautaketa egin ahal izateko. Horretarako, aintzat hartu dira zenbait ezaugarri pertsonal (motibazioa, prestasuna, malgutasuna, interesa, jarrera, inplikazioa), ikasleak ahal eta modu egokienean esleitzeko enpresetan bete behar diren postuetarako.

Gida honen helburu nagusia Unibertsitatea-Enpresa Ibilbide Dualean ikaslea enpresan sartzeko eman beharreko pausoei buruzko argibideak ematea da, baita ondoren ikasleari tutoretzaren eta ebaluazioaren bidez jarraipena egiteko ere.

Ikastegiaren, erakundearen eta ikaslearen arteko lotura

Prestakuntza Dualeko kontratu baten esparruan eta unibertsitatearekin lankidetzako hitzarmena.

Erakundearen eta ikaslearen arteko lotura. Erakundeko egonaldiaren baldintzak

1. ADEGI¹ren jarraibideetan oinarrituz, ikasle langilearen eta erakundearen arteko harremana lan eremuaren barruan gauzatuko da, lan kontratu bat formalizatuta.
2. Prestakuntza DUAL hori egiteko kontratuaren modalitatea, ***Alternantzia prestakuntza duala*** izeneko kontratua erabiliko da eta honako xede hau izango du: “Enpresaren eta unibertsitatearen arteko prestakuntza DUALeko prozesu batean parte hartzea, hainbat lan eginez enpresaren benetako beharretara egokitutako esperientzia praktikoa eskuratu ahal izateko”.
3. Ikasle langilearen eta enpresaren arteko lan harreman dual honek, gainerako langileen kasuan bezala, arau hauek xedatutakoa beste beharko du: Langileen Estatutua, enpresan aplikatzen den hitzarmen kolektiboa eta gainerako lege xedapenak. Beraz, absentzia, lizentzia, baimen, opor eta abarren kasuan, Hitzarmen Kolektiboan eta Langileen Estatutuan xedatutakoa bete beharko da.
4. Lan harreman hori betiere bateragarria izango da ikasleak fakultatean jasoko duen prestakuntza akademikoarekin.
5. Kontratuaren iraupena 2024ko otsailetik 2025ko ekainera artekoa izango da (gutxienez 1.250 ordu). Dual Ibilbidea, ondorengo egonaldietan banatuko da:
 - **I Egonaldia. 2024ko otsaila – ekaina. 16 ordu asteen (guztira 325 ordu).**
 - o 1. aukera: 2 egun enpresan lanaldi osoz edo 3 egun unibertsitatean.
 - o 2. aukera: 4 egun enpresan lanaldi erdiz edo 3 egun unibertsitatean. -
 - **II Egonaldia. 2024ko iraila – abendua. 16 ordu asteen (guztira 250 ordu).**
 - o 1. aukera: 2 egun enpresan lanaldi osoz edo 3 egun unibertsitatean.
 - o 2. aukera: 4 egun enpresan lanaldi erdiz edo 3 egun unibertsitatean.
 - **III Egonaldia. 2025ko urtarrila – apirila. Jardunaldi osoa enpresan (375 ordu)**
 - **Gradu Amaierako Lana. 2025 maiatza - ekaina/uztaila (300 ordu)**

¹ ADEGIren lan aholkularitza.



- Aukeran, aldeek interesa izanez gero, udarako egonaldiak luza daitezke².

6. Administrari laguntzailearen gutxieneko kategoriari dagokion ordainsaria, sektorea arautzen duen hitzarmenaren arabera eta egonaldiaren benetako denboraren proportzioaren arabera. Kotizazioa homoginoa izatea gomendatzen da, urteko partzialtasun koefiziente batean oinarrituta egotea.

Jarraipena eta ebaluazioa

Ikastegiko tutorearen (aurrerantzean, tutorea) eta enpresako tutorearen (aurrerantzean, begiralea) figurak funtsezkoak dira jarraipena egiteko. Garrantzitsua da enpresako begiraleek alderdi pedagogikoetan prestakuntza izatea eta, halaber, unibertsitateko tutoreek enpresaren inguruko alderdietan prestakuntza/esperientzia izatea.

a. Aldez aurretiko bilera:

Urtarril-otsailean, enpresako egonaldia hasi baino lehen, garrantzizkoa da tutoreak –Zuzendaritzako kide batekin batera, beharrezkotzat jotzen badu– aurkezpen bisita bat egitea, zalantzak argitzeko, espektatibak zehazteko eta Prestakuntza Proiektua berresteko (I. Eranskina).

Nabarmendu behar da Ibilbide Dual honen gakoa ikasketa akademikoak enpresako prestakuntza praktikoarekin uztartuko dituen prestakuntza programa bat garatzean datzala. Horretarako, lankidetzan eta elkarlanean egin behar da lan, hezkuntza programa eta titulazioko gaitasunak enpresak aurkeztutako proiektu profesionalarekin bat etortzeko.

Hala, proiektuaz arduratzen den taldeak eta tutoreak eta begiraleak prestakuntza proiektua adostu beharko dute. Proiektu horrek enpresako hainbat parte hartze maila hartu beharko ditu aintzat (behaketa, aplikazioa, ardurak hartzea), bai eta profil profesionala eta egin beharreko betebeharrak edo jarduerak ere (ibilbidea). Beraz, hasierako lan plangintza zirriborratuko da, eta gerora aldatu eta zehaztu egin ahal izango da.

Bisiten plangintza ere egingo da (koordinazio/ebaluazio bilerak).

Egutegia eta orduen zenbaketa zehaztuko dira (eranskinak).

b. Koordinazio/ebaluazio bilerak:

Enpresako egonaldia hastean, hiru aldeek bilera egingo dute, alderdi hauek zehaztearren: ikasleak garatu behar dituen gaitasunak, erdietsi behar dituen eta ebaluatu behar zaizkion ikasketa emaitzak, eta horiek lortzeko egin behar dituen jarduerak (I. eranskin berretsia).

Hasierako irizpide gisa, hiru koordinazio bilera planteatu daitezke, enpresako egonaldi bakoitzeko (egonaldiaren hasieran, erdian eta amaieran).

c. Txostenak aurkeztea:

Egonaldi bakoitzaren amaieran, memoria aurkeztuko/defendatuko da, zeinak lortutako emaitzak ebaluatzeko balioko duen. Horrez gain, zailtasunak aztertuko dira, eta hurrengo eperako helburu berriak finkatuko. **Praktikak gogoetatsua** izan behar du. Horretarako, ikasleak helburuak eta ebaluazioak jasotzen joateko jarraipen koaderno edo *portfolio* bat izango du.

² Ibilbide duala hautazko kredituei dagozkien 48 ECTSz eta Gradu Amaierako Laneko nahitaezko kredituei dagozkien 12 ECTSz (300 ordu) osatuta dago; horiek nahikoak dira titulua lortzeko. Gehiago lortuz gero, espediente akademikoan jasota utzi ahal izango da.



Hortaz, epearen amaieran ebaluazioa progresibo eta gogoetatsua egingo da, gaitasunak oinarri hartuta. Unibertsitateko tutoreak, enpresako begiralearekin batera, txosten bat ere egin beharko du ebidentzietan eta prozesuaren etapa ezberdinetan (lanaren hasieran, garapen prozesuan zehar eta berau amaitzerakoan) egindako ebaluazioetan oinarrituta.

Amaieran, enpresan burututako prestakuntza epe osoaren balorazio orokorra egingo da, enpresako tutoreak eta fakultateko tutoreak adostutako nota global batez, ikaslearen autoebaluazioarekin batera. Egonaldi (irakasgai) bakoitzeko ebaluazio txosten honek hurrengo egonaldia prestatzeko, lortu beharreko helburuak zehazteko balioko du. Txostena sinatu eta datatu behar da, enpresaren eta fakultatearen zigiluaz.